

## ITSAS OSASUNEN PROBINTZIA-ZENTROAK

**ALICANTE.** Muelle de Poniente, 8. 3071. Tel.: 965 92 39 71 • **ALMERÍA.** Puerto Pesquero. Muelle de Poniente, s/n. 4071. Tel.: 950 62 01 47 • **BARCELONA.** C/ Alabareda, 1-13. 8071. Tel.: 93 443 96 00 • **BILBAO. (Vizcaya).** C/ Virgen de Begoña, 32. 48006. Tel.: 94 412 61 00 • **CÁDIZ.** Avda. de Vigo, s/n. 11071. Tel.: 956 26 01 54 • **CARTAGENA. (Murcia).** Muelle de Alfonso XII, s/n. 30203. Tel.: 968 50 20 50 • **CASTELLÓN.** C/ de Mikel Peris y Segarra, s/n. 12100. El Grao. Tel.: 964 28 25 76 • **CEUTA.** Muelle Cañonero Dato, 20. 51001. Tel.: 956 50 02 40 • **LA CORUÑA.** Avda. de Ramón y Cajal, s/n. 15006. Tel.: 981 17 73 74 • **GIJÓN. (Asturias).** Avda. Eduardo Castro, s/n. 33212. Tel.: 985 32 71 00 • **GUIPÚZCOA.** C/ Marinos, 1. 20110. Pasajes de San Pedro. Tel.: 943 40 40 00 • **HUELVA.** Avda. de Hispanoamérica, 9. 21001. Tel.: 950 25 84 11 • **LUGO.** Carril dos Loureiros, 17. Tel.: 982 24 34 02 • **MADRID.** C/ Gaztambide, 85. 28003. Tel.: 91 441 25 30 • **MÁLAGA.** C/ Puente del Carmen, s/n. 29002. Tel.: 952 35 93 61 • **MELILLA.** Avda. Marina Española, 7. 52001. Tel.: 95 267 88 00 • **PALMA DE MALLORCA. (Balears).** Muelle Viejo, s/n. 7071. Tel.: 971 22 71 23 • **PALMAS (Las).** C/ León y Castillo, 322. 35007. Tel.: 928 49 46 45 • **SANTANDER.** Avda. Sotileza, s/n. 39009. Tel.: 942 21 46 00 • **SEVILLA.** C/ Fernando IV, 1. 41011. Tel.: 954 28 61 45 • **TARRAGONA.** C/ Francisco Bastos, 19. 43005. Tel.: 977 24 03 87 • **TENERIFE.** Avda. de Anaga, s/n. 38001. Tel.: 922 59 89 31 • **VALENCIA.** Avda. del Puerto, 300. 46024. Tel.: 96 331 99 07 • **VIGO.** Avda. de Orillamar, 51. 36202. Tel.: 986 21 61 10 • **VILLAGARCÍA.** Avda. de la Marina, 23. 36600. Tel.: 986 50 62 20.

## ITSAS OSASUNEN TOKIKO ZENTROAK

**ALGECIRAS. (Cádiz).** C/ del Muro, 11. 11201. Tel.: 956 65 16 56 • **AVILÉS. (Gijón).** Avda. Conde de Guadalhorce, 97. 33400. Tel.: 985 56 84 92 • **BARBATE. (Cádiz).** Avda. del Generalísimo, s/n. 11160. Tel.: 956 43 07 45 • **BERMEO. (Vizcaya).** C/ Cofradía de Pescadores, 1. 48370. Tel.: 94 688 29 08 • **BURELA. (Lugo).** C/ Rosalía de Castro, s/n. 27880. Tel.: 982 58 58 13 • **CARBONERAS. (Almería).** C/ Almirante Estrada, s/n. 4140. Tel.: 950 13 01 38 • **CILLERO.** Avda. Ramón Canosa, s/n. 27863. Tel.: 982 56 15 06 • **CORCUBIÓN. (La Coruña).** C/ La Viña, s/n. 15310. Tel.: 981 74 62 04 • **EL FERROL. (La Coruña).** Ctra. Alta del Puerto, s/n. 15401. Tel.: 981 35 79 47 • **ISLA CRISTINA. (Huelva).** Avda. Federico Molina, s/n. 21410. Tel.: 950 34 38 63 • **MUROS. (La Coruña).** C/ Porta da Vila, 16. 15250. Tel.: 981 82 61 62 • **NOYA. (La Coruña).** Avda. de la República Argentina, 21. 15200. Tel.: 981 82 11 20 • **ONDARROA. (Vizcaya).** C/ Ibai-Ondo, 15. 48700. Tel.: 94 683 10 00 • **PALAMÓS. (Gerona).** Plaza de la Católica, 3. 17230. Tel.: 972 31 21 70 • **PONTEVEDRA. (Vigo).** C/ Mollabao, 9. 36003. Tel.: 986 84 59 63 • **ROSAS. (Barcelona).** Avda. Tarragona, s/n. 17480. Tel.: 972 25 51 02 • **SANTOÑA. (Santander).** C/ Méndez Núñez, s/n. 39740. Tel.: 942 66 06 50 • **STA. EUGENIA DE RIVEIRA. (Vilagarcía de Arosa).** Plaza de los Marineros, s/n. 15960. Tel.: 981 87 05 40.

Nipo papera: 273-14-034-4 Nipo weba: 273-14-020-0  
Lege-gordailua: M-28800-2014

# Ontzian ura bizitza da

Zaindu zure ontziko  
ur edangarriaren  
kalitatea

Ikas ezazu ura  
kontsumorako baldintza  
optimoetan  
kontserbatzen  
Eskaneatu QR kode hau:



MINISTERIO  
DE EMPLEO  
Y SEGURIDAD SOCIAL

SECRETARÍA DE ESTADO  
DE LA SEGURIDAD SOCIAL



MINISTERIO  
DE EMPLEO  
Y SEGURIDAD SOCIAL

SECRETARÍA DE ESTADO  
DE LA SEGURIDAD SOCIAL



# UR EDANGARRIA ONTZIAN

Ontzian egiten den uraren kudeaketa itsasontzien higieneko alderdi oso garrantzitsua da, ur kutsatua gaixotasun infekziosoak (hepatitisa, polioa, legionelosi, kolera edo sukar tifoidea) edo intoxikazioak (produktu kimikoak edo metalak) transmititzeko bide bat izan baitateke.

## BALDINTZAK

El “agua potable” conlleva:

- ✓ **Ez du gaixotasunak sor ditzaketen germetik izan behar.**
- ✓ **Ez du produktu kimiko kaltegarrik izan behar.**
- ✓ **Bere itxurak, koloreak, zaporeak eta usainak atseginak izan behar dute.**

## ERABILERA

Itsasontzietan, ahal dela, ur edangarria hornitzeko sistema bakarria instalatu beharko litzateke eta honela erabiltzeko:

- ✓ **Edateko ura.**
- ✓ **Sukalderako (janaria garbitu eta prestatzeko, sukaldeko tresnak eta janaria prestatzeko eremuak garbitzeko).**
- ✓ **Saneamendu- eta higiene-jardueretarako (norberaren garbitasuna, arropa garbitzea).**
- ✓ **Larrialdietan erabilera medikorako.**

## HORNIKUNTZA

Ura ontzian bertan sor daiteke destilatuz edo gatzgabetuz, baina, normalean, ur edangarria portuko ur-sistematik hartu ohi da, kaiko ur-harguneetatik edo zisterna-ontzietatik.

Kaitik edo zisterna-ontzietatik ura hartzeko prozesu hori oso garrantzitsua da uraren edangarritasuna mantentzeko. Konexio seguruen bidez egin behar da, mahukak lurretik altxatuta egon behar du eta ez du portuko urik ukitu behar.

Hornitzeko guneak ur edangarriarekin erabiltzeko mahuka egokiak izango ditu, horretarako soilik erabiltzen direnak eta “ur edangarria” hitzarekin etiketatuta; gainera, beharrezko ekipo guztiak gordetzeko armairuak ere izango ditu. Armairuak materiala ez-korrosiboekin eginak izango dira, itxi ahal izango dira, drainatze automatikoa izango dute, garbitzeko errazak izango dira eta “Mahuka / Ur edangarriaren ekipoa” dioen errotulua izango dute.

Ur edangarriarekin erabiltzeko mahukak, osagarriak eta ekipoak aldian-aldian garbitu eta desinfektatuko dira.

## UR EDANGARRIAREN ZIRKUITUA

Barne hartzen ditu deposituak, bonbak, galdarak eta banaketa-sistema (hodi-terria), txorrotak, giltzak, dutxak, eskuak garbitzeko instalazioak, ur edangarri-zko iturriak eta izotz-makinak.

Ontziaren gainerako kanalizazioetatik guztiz aparte egon behar du, batez ere, hondakin-uretatik; jaten ez diren eta toxikoak ez diren materialekin egin behar du, errefluxuen kontrako gailuak eta iragazkiak izango ditu deposituen arnasbi-deetan, intsektuak eta karraskariak sartzea eragozteko, eta hagatxoak ez erabiltzea saihestuko duten maila-adierazle automatikoak.

Tankeak guztiz hustu ahal izango dira urez eta alboan erregistro bat izango dute ikuskatu eta aldian-aldian garbitu ahal izateko. Erregistro hori behar bezala adierazita egongo da.

## ONTZIAN ERAMATEKO GUTXIENKO UR EDANGARRI KOPURUA

Tripulatzaile batek egunean gutxienez 32 litro behar ditu edateko eta 88 garbitasunerako. Kopuru hori igo egin daiteke itsasontziaren eta nabigatuko den eremuaren arabera, batez ere, toki oso beroetan.

## URA DESINFEKTATZEA

Sistema erraz, praktiko eta segurua klorazioa da, aldez aurretik ura iragazita, protozoo patogenorik eta helminterik (harrak) ez duela ziurtatzeko. Izan ere, izaki horiek kloro bidezko desinfekzioa hobeto jasaten baitute bakteriek edo birusek baino.

Oro har, kloroarekin desinfekzio eraginkor bat lortzeko, ziurtatu behar da desinfektatzailearekin 30 minutuz baino gehiagoz egon dela kontaktuan, uraren uhertasuna 1 unitate nefelometriko baino baxuagoa dela, pHa 8.0 baino baxuagoa dela eta hondar-kloro libreak 0,2-0,5 mg/litro balioa lortzen duela.

## SALBAMENDU-TXALUPE-TAKO UR EDANGARRIA

Salbamendu-txalupetako betiko deposituak hermetikoki itxitako poltsetan edo latetan datozen bananako anoekin ordeztu dira. Horrek nabarmen errazten du mantentze-lana (iraungitze-datak eta baten bat galdu ote den bakarrik begiratuko beharko da). Txalupen ur edangarriaren erreserba tankeetan badute, ura hileru aldatu behar da eta, une horretan, depositua ikuskatu beharko da.



UR-GEZA



## ITSASONTZIAN IZAN BEHAR DA:

- ✓ **Probak egiteko oinarrizko analisikit bat (uhertasuna, pH, desinfekzio-hondarrak), dagozkion kontrolak egiteko.**
- ✓ **Arduradunek ontziko ur edangarriaren sistemari egindako kontrolen erregistro bat.**